

FAMILIA ARTEAN

ERALDATZEN DAN HAZIA

SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...



1. AURKEZPENA

Senide edo lagun maitearen heriotzak, era bateko eta besteko gertaera mingarriek,... egundoko zirrara emozionala eragiten deuskue eta, egia esan, sekula ez gagoz horretarako prest... Ez dakigu ez zelan erantzungo dogun ezta gainditzeko gauza izango garan be. Denporaren buruan, ulermena, zainketak, e.a., jasoz, dolua egin eta, apurka-apurka, errealidade barria onartuz joango gara. Beti lez, Jesus izan daikegu bidelagun prozesu horretan. Gaurko saioan, Jesusen ikasleakaz egingo dogu bidea eta etsipena onarpen, itxaropen eta zentzun bihurtzen laguntzen deusela ikusiko dogu.

HASIERAKO DINAMIKA:

Pilota txiki bat dogula, zirkulu zabaletan kokatuko gara eta, txandaka, pilota pasatuko deusagu alkarri. Kolpatu eta jausten bajaku, pilotak ikutu dauan gure gorputzaren atala (besoa: atzean jarri, hanka: txingon, enborra: atzeraka...) ezin izango dogu erabili.

Galderak:

- Zelan sentitu gara?
- Gauzak gatxago egin jakuz gorputzaren atalen bat galtzean?
- Aldamenekoaren laguntza izan dogu ala bakotxak bereari ekin deutso?

2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

Hazia ereten dogunean, beharbada ez doguz prozesuaren lehenengo urratsak ikusiko, baina jakin behar dogu hazi horri, uraz kontaktua izateaz batera, oskola jausi egiten jakola, puztu eta hil egiten dala. Bizi barria hasten da, sustraia atara eta apurka-apurka hazi eta hazi egiten dan landarea sortzen da. Zoragarria da hilda egoan gauzatik zerbait barria sortzen dala ikustea. Gureganako maitasunagaitik Jesusek bere heriotza onartzeko izan eban aldartea eta Jainkoak Jesus Bizi barrirako askatzeko izan eban ekimena bezain harrigarria.

“Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ostera, frutu asko emoten dau” (Joan 12, 24)

3. BIZIPENA

(GERTATU JAKUZAN GAUZEN BARRI EMON)

Orain, dinamika honen bidez, gutunean, txartelean, marrazkian,... gertuko norbait hil jakunean bizi eta sentitu doguna adieraziko dogu.

4. JAINKOARI ENTZUN


(UMEAK)

Dakizuenez, Jesus hil egin zan. Badakizue zer dan hori? Zuon inguruko norbait hil da? Jakina, bere adiskideak ez egozan oso pozik hori gertatu zanean. Irakurriko dogun ipuinari esker ulertuko dogu hobeto zer sentitu eben unean bertan, handik lasterrera eta, apurka-apurka, zelan aldatu ziran euren sentipenak.

Lehenengo aldia. Jesusen adiskideak, basoko animaliak lez, oso TRISTE dagoz bere heriotzaren barri dabenean; Ha barik ezin daitekezala bizi uste dabe.

Bazan behin, basoan beste makina bat aberegaz bizi zan azeria. Azeriak bizitza luze eta zorionsua izan eban. Baina orain nekatuta egoan. Astiro-astiro, gustukoen eban basoko soilgunera abiatu zan, ingurura begiratu, bere baso maiteari azken begiratu eman eta etzun egin zan. Azeriak arnasa sakon hartu eta begiak betirako itxi ebazan.

Lasai eta bakez egoan dana azeriaren inguruan. Xuabe-xuabe, edurra jausten hasi zan, eta tapaki gozoa izango balitz lez, azeria estali egin eban. Banan-banan iritsi ziran azeriaren adiskideak soilgunera. Lehenengo, katagorria eta ogigazta, gero hartz emea, oreina eta mika. Eta azkenik, untxi emea, arratoia eta beste hainbat eseri ziran bere inguruan. Danek maite eben azeria. On eta maitekorra izan zan beti. Ha barik bizitzak ez ebala aurrera egingo pentsatzen eben. Animaliak isilik egon ziran luzaroan.



Bigarren aldia. Cuando empiezan a hablar entre ellos, como cuando los amigos de Jesús empezaron a hablar, se empiezan a sentir mejor, más tranquilos, encuentran ALIVIO. Y empiezan a apreciar la amistad.

Hontzak hitz egin eban lehenengo. Irribarretsu, esan eban:

-Gogoratzen dot, azeria eta ni gazteak ginatean, udazkenero zuhaitzetatik jausten ziran hostoak harrapatzen ibiltzen ginala.

Gainerakoek barre egin eban gogoratzean.

Arratoiak ahopeka esan eban:

-Azeriak iluntzea maite ebala gogoratzen dot. Hementxe, leku honetantxe esertzea gustatzen jakon.

Abereek gogoan eban hori be, euretako bat baino gehiago esertzen zalako haregaz leku haretan ilunabarraz gozatzeko.

Pozik gogoratzen eban azeria eta, horregaitik, euren bihotzak ez ziran hain triste sentitzen.

Udabarri batean, azeriak bere hartz-kumeak zaindu ebazala gogoratu eban hartz emeak.

Untxi emeak be irribarrez gogoratu eban belartzan ezkutaketan jolastu ebenekoa.

Katagorriak aurreko neguan edur azpian egozan intxaurrak azeriaren laguntzari esker atara ebazala gogoratu eban.

Banan-banan, azeriagaz bizi izandako istorioak kontatu ebezan. Azeria basoko animalia guztien bizilagun maitekorra izan zan. Eta, irribarrea ahoan gogoratu eban barriri be.

Hirugarren aldia. Batasun barria bizi dabe azeriagaz. Azeria hil da, Jesus hil zan lez. Baina orain, gogotsu dagoz, bizi egin gura dabe eta azeriagaz bizi izandako esperientzia guztiak kontatu. Jesusen adiskideek be, **BATERA JARRI** gura izan eban Jesusegaz izan ebezan bizipen guztiak.

Animaliek berbetan ziharduen bitartean, landare laranja txiki bat sortu zan edurraren artetik, azeria etzun zan lekuan. Txiki eta apurkorra hasieran, ia ikusi be egiten ez zana, istorio bakotxagaz landarea etenbarik hazten zan, eta sendoago eta ederrago bihurtzen. Gau osoa emon eban animaliek azeriaz hitz egiten eta, goizean, landarea zuhaitz txiki bihurtuta egoan. Ikusi ebenean, azeriak eurakaz jarraitzen ebela jakin eban animaliek. Egunak, asteak eta hilebeteak joan eta etorri, animaliek azeriagaz bizi izandako istorioak kontatu ebezan etenbarik. Euren bihotz atsekabetuak gero eta hobeto egozan. Zenbat eta gehiago gogoratu azeria, orduan eta gehiago hazten zan zuhaitza eta egundokoa zan bere edertasuna. Azkenean, basoko zuhaitzik altuen bihurtu zan. Oroitzapenez eta maitasunez hazitako zuhaitza zan.

Azeriarengandik jaiotako zuhaitza hain zan handia eta sendoa non abere guztiak gainean hartzeko gauza zan. Beti egoan biziz beteta. Hostoen artean, txoriek euren habiak egin ebezan eta hontzak adarretan zaindu ebazan bere bilobak. Katagorriak enborrean egin eban bere etxea eta hartz emeak, oreinak eta untxi emeak haren itzalean egiten eban lo. Zuhaitzak INDARRA emon eutsen azeria maite izan eban guztiei eta horri esker azeria euren bihotzean geratu zan betirako.

OROITZAPENEN ZUHAITZAREN IPUINA:

Bideoa ikusi gura izan ezkerro, youtubera jo:

https://www.youtube.com/watch?reload=9&v=V_Gvc8CU9tI*

(HELDUAK)

Emauseko ikasleen kontaketa. Lk 24, 13-35

Emauseko ikasleen kontaketa irakurriko dogu Lukasen liburuan. Jesusen jarraitzaile bik Ha kurutzean josita hil ondoren bizi daben dolua kontatzen deusku.

Egun haretan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herrirka batera joiazan, Jerusalemetik hamaika kilometrora . Gertakari guztietaz mintzo ziran alkarregaz.

Horixe da agertokia. Bidea. Dolua, bidea da, pertsona bakotxak burutu behar dauan ibilbidea. Bilakaera dau, aldi desbardinak... Zeintzuk ete dira Jesusen ikasleek bizi dabezanak?

Lehenengo aldia. Urradura bizi dabe. Atsekabetuta dagoz, nahigabetuta. Gertatutakoa ulertu ezinik dagoz. ETSITA. Burutik pasatu be ez jake egiten euren zoritxarraren barri ez dauan inor egon daitekenik. Ikusi daigun.


Eta, berbetan eta eztabaidan ari zirala, Jesus bera ondoratu jaken eta eurakaz joan zan. Baina ikasleek begiak itsu ebezan eta ez eben ezagutu. Jesusek esan eutsen: «Zeri buruz zoaze bidean alkarregaz berbetan?». Hareek gelditu egin ziran, aurpegia ilun, eta euretako batek, Kleofas deitutakoak, honan erantzun eutsan: «Zeu izango zara egun honeetan Jerusalemen gertatu dana jakin ez dauan kanpotar bakarra!». «Zer gertatu da, bada?» – esan eutsen harek. Hareek erantzun eutsen: «Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zan hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure abade nagusi eta agintariak heriotzara kondenatu dabe eta kurutziltzatu. Guk uste genduan berak askatuko ebala Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dala [...]».

Bigarren aldia. Beste bategaz, Jesusegaz, berba egiteak euren baitatik ataraten ditu. Apurka-apurka, naitasuna berreskuratuko dabe, LASAITUA hartuko... Adiskidetasuna, kanpotik datorrena estimatzen hasiko dira. Ulertezinak, azkenean, esangura izan leikela ikusiko dabe.

Orduan, Jesusek esan eutsen: «Bai buru gitxikoak zariela, bai motelak profetek esana sinisteko! Ez ete eban Mesiasak hori guztia sufritu behar bere aintzara iristeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz inoen guztia azaldu eutsen. Joiazan herririkara hurbildu ziranean, aurrera jarraitzeko keinua egin eban Jesusek. Baina hareek arren eta arren eskatu eutsen: «Gelditu zaitez gugaz, berandu da-eta, eta iluna gainean dogu».

Hirugarren aldia. Batasun barria bizi dabe Jesusegaz, heriotzak euren ondotik indarrez kendu eutsenagaz. Desbardinak da, baina bizitza barria berreskuratuzeko baliagarria. Orain, adoretz beteta dagoz bizitzeko eta Jesusegaz bizi izandako esperientziaren BARRI EMOTEKO.

Ondoren, alkarregaz mahaian jarri ziran, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazinoa esan, zatitu eta emon egin eutsen. Orduan, begiak zabaldu jakezan eta ezagutu egin eben, baina Jesus desagertu egin jaken begi aurretik. Hareek alkarri esan eutsen: «Ez ete geunkan barruasutan, bidean Liburu Santuak azalduz berba egin deuskunean?». Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziran; eta Hamaikak eta honeen lagunak batuta aurkitu ebezan, honan inoela: «Egia da! Biztu da Jauna eta Simoni agertu jako». Ikasle biek bidean gertatu eta zelan ogia zatitzean ezagutu eben kontatu eutsen.



5. ALKARRIZKETAN JARDUN

(UMEAK)

Hasieran egin dogun marrazkiari begiratu eta ondorengo galderei erantzungo deutsegu:

- Gertatu jatzue inoiz holarikorik?
- Basoko abereen antzera sentitu zarie? Zeinen antzera?
- Orain, hareetakoren batek sentitzen ebana sentitzen dozue?
- Etxean oroitzapenen zuhaitz txiki bat eukitea gurako zeunkie?

Etxean basorik ez dozueenez, ontzi bat prestatu beharko dozue bertan zuhaitz baten hazia eriteko. Beraz, lorontzi polit bat egingo dogu. Baina, ez ahaztu, lorontzi hori apaintzean, go-goan izan bihotzean dozuen edo dozuezan pertsona eta animaliak, holan bakarrik egingo dozue-eta maitasunez betetako lorontzia.



1. Plastikozko botila erdibitu.



2. Belarriak eta emon gura deusagun itxura marraztu.



3. Moztu marraztutako letrorrik.



4. Ontzia margotu.



5. Lehortzen itzi.



6. Xehetasunak errotuladore iraunkorragaz marraztu.



JARRAIBIDEAK LORONTZI POLITAK EGITEKO:

Materialak:


- Litro 2ko plastikozko botilak
- Margo akrilikoa
- Pintzelak
- Guraizeak
- Errotuladore iraunkorrak

Jarraibideak banan-banan bideoan ikusi gura badozuz, youtubera jo: https://www.youtube.com/watch?v=BezX_OgUV0k

(HELDUAK)

Galderei erantzun aurretik, idatzi dogun gutuna, txartela... irakurriko dogu.

- Kontaketan islatuta ikusten dogu geure burua? Dolua bizitzen ari gara? Ze alditan gagoz?
- Zerk laguntzen deusku dolua egiten? Zerk ez deusku laguntzen prozesu horretan?
- Jainkoaren esperientziak eta kristau alkarteak zelan laguntzen deuskue geuri eta familiari doluan?
- Umeek be dolua egin behar dabe senide edo lagun bat hiltzen jakenean. Sarritan, biziki ahalegintzen gara atsekabe eta tristurarik izan ez daien. Beste batzuetan, adinaren arabera, istorio sinbolikoak kontatzen deutseguz, dolua egiten laguntzeko. Ze esperientzia dozu? Ze erizpide darabilzu?



6. OTOITZEAN ADIERAZO / OSPAKIZUNA

Giro nasaian, isiltasuna egin eta saio honetan landutako guztia gogora ekarriko dogu (argi apala eta zeharkakoa)

Askotariko sentipenak azaleratu dira, batzuetan, atsekabea, ukapena, amorrua, tristura, bildurra..., nagusitu dira, baita agertu dira, tarteka, nasaitasuna, onarpena, kontsolamendua, bakea, itxaropena,... ere.

Zirkuluan jarriko gara eta erdian kandela biztuko dogu. Ondoren, "Sé mi luz" abestuko dogu, Aita-Ama Jainkoari laguntza eta indarra eskatuz tristura eta iluntasunez betetako une gatxetarako. Biztu dogun kandela horrek Jesus beti gugaz dagoala adierazoten dau.

*Sé mi luz, enciende mi noche.
Sé mi luz, enciende mi noche.
Sé mi luz, enciende mi noche,
mi noche, sé mi luz.*

*Abestia entzun gura bada:
<https://www.youtube.com/watch?v=E-G34BJqM1Y>

Joanen ebanjelioko txatal bat irakurriko dogu:

Bene-benetan dinotsuet: **Gari-alea, lurlean sartu eta hilten ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hilten bada, ostera, frutu asko emoten dau**

Joan 12, 24

Isiltasuna egin eta Jesusen hitzak ulertzen doguzan ikusi.

◆ Orain, gura dauanak, batera jarri leike: Zelan sentitu zara saioan? Ze zailtasun izaten dogu txiki eta helduok? Zer gauza garrantzitsuz jabetu zara?

◆ Guztia laburbiltzeko, "zeinua" egingo dogu: lorontzi txiki batzuk doguz (umeeek egin dabezanak) eta haziak (ekilore-hazi naturalak).

Bakotxak lorontzi bat hartu eta saioan bereziki gogoratu dauan pertsonarengan pentsatuz, hazia erdin eta pertsona horregaz bizi izandako esperientziaren bat kontatuko dau. Saioaren hasierako gutuna, txartela edo marrazkia hartu, txikitu eta haziagaz batera lurperatu daiteke.

◆ Danok batera, otoitz egingo dogu:

*Inor ez dago bakarrik.
Inor ez dago bakarrik,
nahiz eta batzuetan baietz emon,
eta zaurituta sentitu
edo erraiak urratuta izan.
Barrea galtzen badozu,
bertsoak isiltzen bajatzuz,
historia min emoten badeutsu
eta oraina mehatxuka badozu,
bildurrak barruraino sartzen bajatzuz
edo etorkizuna iluntzen bajatzu...*

*Egia da, bai,
egun batzuk grisak dira,
isiltasunez beteta dagoz,
nahigabetu eta zapaldu egiten zaitue.
Une batzuetan, distantzia
nostalgia eta ausentzia da.
Barrero bat egin guran dagozan
besarkada galduak dagoz.
Azkena emoten daben hondoratze
eta porrotak dagoz.*

*Baina inor ez dago bakarrik,
nahiz eta batzuetan baietz emon.
Zure Hitza ez da joaten
eta zure Espirituak batu egiten
gaitu,
gure artean dabil nekaezin.
Lo dagoan Maitasuna esnatuz,
zerbitzuz jantziz,
lagun hurko deituz,
eta gure egunetan
familia bihurtzen diran
ezusteko maitasunak josiz.
Nahiz eta gure barruan euria egin.*

Jose Maria Rodriguez Olaizola sj.

◆ Amaitzeko, Coco pelikularen “Recuérdame” atal hau:
<https://www.youtube.com/watch?v=pYPL2zkNXj4>

7. ETXERA EROAN

Otoitzean erabilitako lorontziak etxera eroan eta zaindu egingo doguz, hazia zelan erneten dan ikusteko.

Batzuetan, gertatu leike ez ernetea, edo landaratxoa alperrik galtzea,... baina barrero saiatu gaitkez.

Holan, gure landareari begiratu deiogun bakotxean, dagoeneko gure artean ez dagozanak gogoratzea, horreez berba egitea gure bizitzetan bizirik iraun daien ze garrantzitsua dan ikusiko dogu.

